

ARLO PUBLIKOAREN ETA PRIBATUAREN ARTEKO LANKIDETZA PROIEKTUEN DEIALDIA, 2023koa (LEHENGO LANKIDETZA ERRONKAK)

DEIALDIAREN XEDEA ETA HELBURUA

Xedea. Garapen esperimentaleko proiektuak finantzatzea, enpresen eta ikerketa erakundeen arteko lankidetzarekin, teknologia, produktu eta zerbitzu berriak baliozkotzea eta lehiatu aurreko garapena ahalbidetuko duten jakintzak eta emaitza zientifiko-teknikoak txertatzen aurrera egiteko. Horretarako, testuinguru egokia sortuko da, I+G+b-ko masa kritiko baten eraketa sustatuko duena, diziplinarterkoa, aplikatzeko, transferitzeko, konponbideak bilatzeko eta emaitzak sortzeko, bai enpresen ibilbide teknologikoetan eta berrikuntzakoetan, bai merkatuan.

PROIEKTUREN EZAUGARRIAK

Aurkeztutako proiektuen gaiak bat etorri beharko dute 2021-2023ko Ikerketa Zientifiko, Tekniko eta Berrikuntzako Estatuko Planean deskribatzen diren lehentasun tematikoekin (deialdiko II. eranskina).

Proiektua ebaluatzeko aukeratutako gai arloa identifikatu beharko da. Zerrenda III. eranskinean ageri da. Instrukzio organoak, Koordinazio eta Ebaluazio Azpialak proposamen arrazoitua eginez gero, ofizios aldatu ahal izango du proiektua beste gai arlo batera.

Deialdi honen xede diren proiektuak garapen esperimentaleko proiektuak izango dira, hainbat erakunde onuradunek lankidetzara eraginkorra eginik. Proiektuetan laguntza jaso dezaketen jarduerak oinarri arautzailetako II. eranskineko 8. eta 9. paragrafoen definizioarekin bat etorrira garatuko dira.

Hauek dira aurkeztutako proiektuek bete behar dituzten baldintzak:

- Proiektuaren **gutxieneko aurrekontua 400.000** eurokoa izango da.
- Proiektuek **hiru urteko iraupena** izango dute, eta eskabidean adierazitako egunean hasiko dira gauzatzen. Nolanahi ere, hasiera data eskabideak aurkezteko amaiera data baino geroagokoa izango, eta 2023. urtearen barruan egongo da.

Partaidetza:

Eskatzailea. Proiektua aurkezten duen erakunde taldearen ordezkaria enpresa bat izan behar da, 5.1 h) artikuluan adierazitako moduan. Enpresa horrek laguntzaren eskatzaile gisa jardungo du, eta organo emailearekiko solaskide bakar gisa; hortaz, bera izango da jakinarazpenak eskuratzeko aukera izango duen bakarra (Espedienteen Karpeta Birtuala-Facilit @), eta gainerako parte hartzaileei helarazi beharko dizkie organo emaileak deialdian ezarritako bitarteko elektronikoen bidez jakinarazten dituen jakinarazpen edo komunikazio guztiak.

Gutxieneko erakunde parte hartzaileak. Proiektuan gutxieneko delat bi erakunde hartu beharko dute parte, eta erakunde horietako bat ikerketaren arloko erakunde publiko edo pribatu bat izango da nahitaez, 5.1 a) artikulutik g) artikulura bitartean adierazitakoaren arabera eta besteak enpresa bat izan behar du.

Erakundearen gutxieneko partaidetza. Erakunde bakoitzak proiektuaren aurrekontu osoaren %10eko gutxieneko partaidetza izango du.

Enpresaren partaidetza. Enpresaren partaidetzaren ehuneko baturak, hau da, 5.1 h) eta i) artikuluan aipatutako erakunde baturak, aurkeztutako aurrekontu osoaren % 51 izan beharko du **gutxienez**, eta erakunde bakar batek ere ez du aurrekontu horren % 70 baino gehiago bere gain hartuko.

Ikerketako erakundeek ikerketa proiektuen emaitzak argitaratzeko eskubidea izango dute, baldin eta beraiek egindako ikerketatik sortutakoak badira.

Zeharkako kostuak proiektuaren zuzeneko gastuen gaineko % **25eko** ehuneko finkoa izango dira.

Jarduera:

Proiektuetan ez da sartuko zuzenean edo zeharka ingurumenari kalte nabarmena eragiten dioten jarduerarik («DNSH printzipioa»), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020ko ekainaren 18ko 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikulua jasotakoaren arabera («Taxonomiari buruzko Erregelamendua»), inbertsio jasagarriak errazteko esparru bat ezartzei buruzkoa eta (EB) 2019/2088 Erregelamendua aldatzen duena. Bestalde, proiektuetan ez dira sartuko ere aplikatzekoak diren Estatuko eta Europako Erkidegoko ingurumen legeria betetzen dela bermatzen ez duten jarduerak, «kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioaren aplikazioari buruzko gida teknikoa (2021/C 58/01) betez, eta ez dira sartuko, modu berean, aplikatzekoak diren Estatuko eta Europako Erkidegoko ingurumen legeria betetzen dela bermatzen ez dutenak.

ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Hasiera 2023ko otsailaren 13an eta amaiera 2023ko martxoaren 7an, 14:00etan (penintsulako ordua).

UPV/EHUko KONTAKTUA:

Helbide elektronikoa: convocatorias.dgi@ehu.eus

ESKABIDEAK AURKEZTEKO PROZEDURA

Enpresek (koordinatzaileek) aurkeztu behar dituzte eskabideak, MICINNeen egoitza elektronikoen bidez: <https://www.aei.gov.es/convocatorias/buscador-convocatorias/proyectos-colaboracion-publico-privada-2022>

Koordinatzaileak sortu beharko du laguntza eskaera, eta proiektuaren datu orokorrak eta proiektuan parte hartzeko datu espezifikoak adierazi beharko ditu. Eskabidearen aplikazioan sortutako dokumentua elektronikoki sinatu eta erregistratuko du; bertan jasoko direlarik proiektuaren datu orokorrak eta proiektuan parte hartzeko adostasun adierazpenari buruzkoak.

Parte hartzen duen erakunde bakoitzak proiektuan parte hartzei buruzko datu espezifikoak bete behar ditu, eta parte hartzeko adostasun adierazpena elektronikoki sinatu.

UPV/EHUko interesdunek **2023ko otsailaren 17ra** arteko epea izango dute deialdian parte hartzeko asmoa adierazteko. Horretarako, mezu bat bidali beharko dute helbide elektronikoko honetara: deialdia.dgi@ehu.eus

Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzaren deialdi ataleko pertsonalak deialdiko jarraibideak eta parte hartzea bideratzeko eta behar bezala gauzatzeko behar den dokumentazio gehigarria bidaliko die parte hartzeko interesa adierazi dutenei.

Behin proiektuan parte hartzen duten erakundeei alta eman ondoren, erakunde bakoitzak bere parte hartzei buruzko datuak bete eta parte hartzeko adostasun adierazpena sinatu beharko du.

Interesatuta dauden UPV/EHUko ikertzaileek ez dute aplikazioan sartzeko aukerarik izango proiektuan parte hartzeko. Zeregin hori deialdiaren ardura duten Ikerketaren arloko Errektoreordetzako pertsonalak egingo du. Horretarako, ezinbestekoa izango da **AURREKONTUAREN ERANSKINA** agiria bete eta **2023ko otsailaren 24rako** deialdia.dgi@ehu.eus helbidera bidalita izatea.

Erakunde eskatzailea, koordinatzailea (enpresa), arduratuko da eskaeran proiektuaren memoria teknikoa eta ekonomikoa aurkezteaz eta galdetegia sortzeaz. Eta, azken buruan, laguntza eskaera elektronikoki erregistratuko du.

Gogoan izan bete beharreko epeak:

2023ko otsailaren 17ra arte -> Deialdian **parte hartzeko interesa** adierazteko.

2023ko otsailaren 24ra arte -> AURREKONTUAREN ERANSKINA bidaliko da convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera, UPV/EHUk erakunde parte hartzaile gisa proiektuan parte hartzea bete eta adostasun adierazpena elektronikoki sina dezan. Hori guztia kontuan hartuta, koordinatzaileak aldez aurretik erregistratu beharreko dokumentua sortu ahal dezan, gainerako erakunde parte hartzaileek parte hartzeko adostasun adierazpena sinatuta izan behar dutela.

INFORMAZIOA GEHIGARRIA

UPV/EHU erakunde parte hartzailearen datuak:

Legezko ordezkaria -> Inmaculada Arostegui Madariaga

Kargua -> Ikerketaren arloko errektoreordea

UPV/EHUren IFK/IFZ -> Q4818001B

Egoitza soziala -> Sarriena auzoa, z/g

Posta kodea -> 48940

Herria -> Leioa